aranzadi zientzia elkartea
SOCIEDAD DE CIENCIAS
SOCIETY OF SCIENCES
SOCIÉTÉ DE SCIENCES

2016



# ARKEOLOGIA

Aranzadiren udako indusketak



Ikerketa arkeologikoak Aranzadi Zientzia Elkarteak udan garatzen duen jarduera nagusietako bat dira. Koba, dolmen, herrixka, galtzada, gaztelu, ermita eta abarretan erregistratzen den informazioa ezinbestekoa da gure iragana ezagutzeko eta gure ondarea kontserbatzeko.

Aranzadiren ikerketa arkeologiko horiek bertako zuzendarien, ikasleen eta bertan inplikatutako pertsona guztien boluntariotza-lanari esker egiten dira. Era berean, udalekin eta aztarnategiak dituzten udalerrietako herritarrekin lankidetzan garatzen dira. Hori guztia dela eta, eskerrak eman nahi ditugu boluntariotza arkeologiko horrengatik; izan ere, horrela izan ezean, ezingo litzateke egin.

Parte hartzeko, laguntzeko eta ikasteko interesa duten pertsonen eskariari erantzuteko, informazio-liburuxka hau egin da; bertan, Aranzadik 2016an jendeak ikusteko zabalik dituen indusketen oinarrizko informazioa aurkituko duzu.

Izena eman nahi baduzu, hemen bete dezakezu inprimaki-orria.



# LEZETXIKI

(ARRASATE, GIPUZKOA)



Mota: Indusketa arkeologikoa koban

Kronologia: Paleolitoa

Indusketa-datak: ekainaren 27tik uztailaren 16ra

Zuzendaritza: Álvaro Arrizabalaga

Hizkuntza: elebidun (gaztelania eta euskara)

Prezioa: doakoa (ostatua eta mantenua barne)

Leku-kopurua: 25 (JADA BETE DA)

Laguntzaileak: Arrasateko Udala, Kobateko Karobia eta Harrobia, Gipuzkoako Foru Aldundia.



Humeroa, H. Heiderlbergensis, Lezetxiki

Lezetxiki Gipuzkoako koba garrantzitsuenetako bat da. Bertan, azken hamarkadotan, zenbait hondar aurkitu dira, besteak beste: Euskal Herriko gorpuzki zaharrena (Homo Heidelbergensis espezieko emakume baten humeroa); Homo Neanderthalensis baten zintzilikario gisa erabilitako maskorrak, aurreko hagin bat eta hagin bat; eta zenbait animaliaren hezur-hondarrak, besteak beste, deningeri hartzarenak, leizeetako hartzarenak, Megaloceros giganteus-enak, Panthera leo spelaea-renak…



# SAN ADRIAN - LIZARRATE

## (ZEGAMA-SEGURA-IDIAZABAL, GIPUZKOA)



Mota: Indusketa arkeologikoa koban

Kronologia: Goi-paleolitoa, Brontze Aroa, Erdi Aroa, Aro Modernoa.

Indusketa-datak: uztailaren 18-30

Zuzendaritza: Alfredo Moraza, Manu Ceberio

Hizkuntza: elebidun (gaztelania eta euskara)

Prezioa: doakoa (ostatua eta mantenua barne).

Leku-kopurua: 15



Brontze aroko zeramika, San Adrian.

Laguntzaileak: Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Orokorra, Zegamako, Segurako, Idiazabalgo, Asparrenako, Donemiliagako eta Zeraingo udalak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Aizkorri Parkea.

San Adrian Lizarrateren paseoa kobako aztarnategia da; bertan, goi-paleolitotik hasita XX. mende arteko material arkeologikoak jasotzen dira. Silexko tresnak, hezur- eta fauna-hondarrak, txanponak eta arma-zatiak eta antzinako eraikinak daude Gipuzkoa sakonean dagoen koba honetan; 1000 metrotik gora dago.



# TXORITOKIETA

(ERRENTERIA, GIPUZKOA)





Aitzetako Txabala, Txoritokieta

Mota: Multzo megalitikoko ikerketa arkeologikoa.

Kronologia: Neolitoa - Brontze Aroa

Indusketa-datak: uztailaren 4-16

Zuzendaritza: Jesús Tapia, Manu Ceberio

Hizkuntza: elebidun (gaztelania eta euskara)

Izena emateko prezioa: doakoa (mantenua barne)

Leku-kopurua: 10

Laguntzaileak: Errenteriako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia

Berrozpinen eremuan, Txoritokietako estazio megalitikoaren barruan, monumentu megalitiko batzuk aurkitu dira, eta silexko hainbat tresna berreskuratu dira. Ikerketen bidez, lekuaren bilakaera berreraiki nahi da; horretarako, dauden megalitoak aztertzeko ahalegina egiten ari da eta berriak identifikatzen, bai eta eraikitzaileen habitat-leku posibleak ere.

# KARAKATE - KURUTZEBAKAR

(ELGOIBAR - SORALUZE, GIPUZKOA)



TMota: Gizaburuako (Soraluze) tumuluko indusketa arkeologikoa

Kronologia: Neolitoa - Brontze Aroa

Indusketa-datak: iraila-urria

Zuzendaritza: Manu Ceberio

Hizkuntza: elebidun (gaztelania eta euskara)

Izena emateko prezioa: doakoa (mantenua barne)

Leku-kopurua: 10

Laguntzaileak: Debegesa, Gipuzkoako Foru Aldundia

Indusketa hau Dolmenen Ibilbidea izenez ezagutzen denaren barruan dago; 20 km inguruko ibilbidea da, Deba eta Urola ibaien haranen arteko ibilbidea. Dolmenek eta tumuluek osatzen dute ElosuaPlazentzia estazio megalitikoa, Karakate (749m), Irukurutzeta eta Agirreburu tontorrak marrazten dituen gailur-lerroan zehar sakabanatuta. Ikerketa-lanaren helburua da monumentu megalitikoak eta estazio horren barruko habitat-leku posibleak aztertzea.

# MUNOAUNDI

(AZKOITIA-AZPEITIA, GIPUZKOA)



Mota: Indusketa arkeologikoa herrixka gotortuan

Kronologia: Burdina Aroa

Indusketa-datak: uztailaren 11-30

Zuzendaritza: Antxoka Martínez

lHizkuntza: elebidun (gaztelania eta euskara)

Izena emateko prezioa: doakoa (ostatua eta mantenua barne)

Leku-kopurua: 20



Brontzezko pisua, Munoaundi

Laguntzaileak: Azpeitiko eta Azkoitiko udalak, Gipuzkoako Foru Aldundia.

Munoaundi herrixkako indusketetan batik bat bertako biztanleek Burdina Aroan izandako bizimodua eta defentsa-sistema (harresia eta barrutira sartzeko sistema) aztertzen da. Gaur egun, ikerketa bi arlotan zentratzen da, eta, horietan, barrutiaren sarbidea eta harresiaren ondoko biztantze-eremua aztertzen dira.



# BASAGAIN

(ANOETA, GIPUZKOA)



Mota: Indusketa arkeologikoa herrixka gotortuan

Kronologia: Burdina Aroa

Indusketa-datak: irailaren 12-30

Zuzendaritza: Xabier Peñalver

Hizkuntza: elebidun (gaztelania eta euskara)

Izena emateko prezioa: doakoa (ostatua eta mantenua barne)

Leku-kopurua: 15



Fskuko baten zatia, Basagain

Laguntzaileak: Anoetako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia

Burdina Aroko herrixka Anoetako (Gipuzkoa) Basagain mendian dago, eta duela 20 urte baino gehiagotik hona egiaztatu da bertan zegoen merkataritza-jarduera, burdinazko, zeramikazko tresnak eta beira-aleak agertu zirelako zenbait puntutan. Euskal Herrian arkeologikoki gotortutako herrixka aktiboenetako bat da.



# ERROIZPE - ULI KORDALA

## (BERASTEGI-GAZTELU-LIZARTZA-OREXA, GIPUZKOA)



Mota: Prospekzio arkeologikoa kata eta zundaketekin

Kronologia: Burdina Aroa - Erdi Aroa

Indusketa-datak: uda-udazkena

Zuzendaritza: Manu Ceberio

Hizkuntza: elebidun (gaztelania eta euskara)

Izena emateko prezioa: doakoa (mantenua barne)

Leku-kopurua: 10

Laguntzaileak: Gipuzkoako Foru Aldundia

Ikerketen helburua da gailur-lerro menditsu honetako populaketaren bilakaera berreraikitzea, historiaurretik Erdi Arora. Egiten ari diren lanei esker, hainbat aztarna arkeologiko aurkitu dira: monumentu megalitikoak, antzinako etxolak eta abar.



# PIRINIOETAKO ERROMATAR GALTZADA: ZALDUA

(NAFARROA)



Mota: Indusketa arkeologikoa

Kronologia: Erromatar garaia

Indusketa-datak: uztailaren 18-30

Zuzendaritza: Julian Hill, Juantxo Agirre-Mauleon

Hizkuntza: Ingelesa

Izena emateko prezioa: 300 EUR (ostatua eta mantenua barne)

Leku-kopurua: 15



Erromatar Miliarioa

Laguntzaileak: Euskokultur Fundazioa, Luzaideko, Orreagako, Auritzeko, Erroibarko, Artzibarko, Agoizko, Longidako udalak, Aurizberriko kontzejua, Urrobi kanpina.

Pirinioetan, ITER31 galtzada erromatarrean, dagoen hiri-finkapen nagusiaren eraikuntza-egituren mugaketa eta zehaztapena helburu duen indusketa arkeologikoa (Orreaga-Luzaide). Indusketa Museum of London Archaeologyko (MOLA) adituek zuzentzen dute, eta erakundeak baliatutako erregistro arkeologikoko sistemen ikaskuntzara bideratuta dago.



# PIRINIOETAKO ERROMATAR GALTZADA: ARTZIBAR
(NAFARROA)



Mota: Indusketa arkeologikoa

Kronologia: Erromatar garaia

Indusketa-datak: 15 egun (irailaren amaiera - urriaren hasiera)

Zuzendaritza: Juantxo Agirre-Mauleon

Hizkuntza: elebidun (gaztelania eta euskara)

Izena emateko prezioa: 300 (ostatua eta mantenua barne)

Leku-kopurua: 15

Laguntzaileak: Euskokultur Fundazioa, Luzaideko, Orreagako, Auritzeko, Erroibarko, Artzibarko, Agoizko, Longidako udalak, Aurizberriko kontzejua, Urrobi kanpina.

Toki erromatar baten ikerketa; bertan finkatu zen Artziko Jaurerria Erdi Aroan. Gaur egun, eliza erromaniko garrantzitsua eta armagintzako kaboaren jauregia dago. Pirinioak zeharkatzen zituen galtzada erromatarraren tarteko puntu batean dago.



# IRULEGI

(ARANGUREN, NAFARROA)



Mota: Indusketa arkeologikoa gazteluan

Kronologia: Erdi Aroa (XIII-XV. mendea)

Indusketa-datak: ekainak 27-uztailak 10

Zuzendaritza: Javi Buces

Hizkuntza: elebiduna (gaztelania eta euskara)

Izena emateko prezioa: doakoa (ostatua eta mantenua barne)

Leku-kopurua: 15

Laguntzaileak: Aranguren Haraneko Udala.



gerriko belarria eta lantza punta, Irulegi

Irulegiko gaztelua nagusi da Iruñeko arroan, eta Nafarroako Erreinuko defentsa-elementua izan zen, harik eta 1494an erori arte. Gaur egun, balioan jarri eta hondarrak sendotzen ari dira. Aurten iparraldeko harresia induskatuko da.



# SAN GREGORIO LARUNBE

(IZA, NAFARROA)



Mota: Indusketa arkeologikoa monasterioan

Kronologia: Erdi Aroa eta Aro Modernoa (XII-XIX. mendeak)

Indusketa-datak: astebete urrian

Zuzendaritza: Juantxo Agirre-Mauleon

Hizkuntza: Euskara

Izena emateko prezioa: doakoa (hamaiketakoa barne)

Leku-kopurua: 12

Laguntzaileak: Larunbeko kontzejua, Itzako Udala.

Arriaundi mendiko gailurrean Larunbeko San Gregorio ermitaren hondarrak daude; horien azpian Goi Erdi Aroko monasterio baten absideen aztarnak dokumentatu dira. Kokapen estrategikoa da, botere-nukleoa eta Goi Erdi Aroko Nafarroaren komunikazioak ikusiz kontrolatzen dituena.



# AMAIUR

(BAZTAN, NAFARROA)



Mota: Indusketa arkeologikoa gazteluan

Kronologia: Aro Modernoa (1512-1522)

Indusketa-datak: abuztuaren 1-14

Zuzendaritza: Juantxo Agirre-Mauleon

Hizkuntza: Euskara

Izena emateko prezioa: 100 EUR (ostatua eta mantenua barne)

Leku-kopurua: 40

Laguntzaileak: Amaiurko Herrie, Baztango Udala.



Amaiurko ezpata

Amaiurreko gaztelua Nafarroaren konkistari gogor egin zioten azken gotorlekuetako bat izan zen. Kanpaina honetan, kubo handia mugatu eta dokumentatuko da, 1513ko eraikuntza bat, kanoi-zulo plataforma handi bat hartzeko diseinatu zena.



# SASETA DEFENTSA SISTEMA

## (ADUNA-ASTEASU-ZIZURKIL, GIPUZKOA)



Mota: Indusketa arkeologikoa lubakietan

Kronologia: 1936

Indusketa-datak: uztailaren 11-24

Zuzendaritza: Javi Buces

Hizkuntza: Euskara

Izena emateko prezioa: 150 EUR (ostatua eta mantenua barne)

Leku-kopurua: 16

Laguntzaileak: Adunako, Asteasuko eta Zizurkilgo udalak, Gipuzkoako Foru Aldundia



bala zorroak, Saseta defentsa sistema

1936ko Frankoren altxamendutik, Oria haraneko eremu honetako mendietan, antolatutako lehenengo erresistentzia gauzatu zen, Azpeitiko komandantziatik bultzatutako lubaki eta defentsa-elementuen bidez. Leku horietan, lehenengo liskar belikoak izan ziren, eta lehenengoz matxinatuak eten zituzten Euskal Herrian. Memoria historikoa berreskuratzeko lanen barruan, ahaztutako ondare hori dokumentatzen ari da.

# LAGUNTZAILEAK

## ERAKUNDE ETA ENPRESAK

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte

MOLA
MUSEUM OF LONDON ARCHAEOLOGY

Debegesa

URROBI

Euskokultur Fundazioa

Aranguren Televisión
Aranguren Telebista

GIPUZKOAKO ETA ARABAKO PARTZUERGOA

AIZKORRI - ARATZ
PARKE NATURALA

## UDALAK

Aduna

Agoiz

Anoeta

Aranguren

Arrasate

Artzibar

asteasuko udala

Auritz

AZKOITIA Udala

azpeitia

Baztan

Errenteria

Erroibar

Iza

Idiazabal

Larraul

Longida

Luzaide

Segura

Zegama

Zerain

Zizurkil

# ZERBITZU ARKEOLOGIKOAK

- Indusketak, zundaketak eta prospekzio arkeologikoak
- Obren kontrol arkeologikoa (lur mugimenduak, sastrakak kentzea…)
- Azterlan historiko-arkeologikoak eta dokumentalak
- Ondasun higiezinen eta higigarrien azterlana eta balorazioa
- Prospekzio geofisikoak
- Laser bidezko eskaneatzea eta aztarnategien topografiatzea
- Aztarnategien aireko argazkia
- Material arkeologikoen azterlan espezializatua (zeramika, fauna, litikoa)
- Azterketa antropologikoak
- Aztarnategien eta material arkeologikoen inbentarioa eta katalogazioa
- Legezko aholkularitza - hirigintza-plangintzako arauak
- Aholkularitza historikoa
- Itzulpen espezializatuak
- Argitalpenak
- Ondare-elementuen musealizazioa eta seinalizazioa
- Aztarnategi arkeologikoak finkatzea eta lehengoratzea
- Publikoari oro har eta eskolatuei zuzendutako tailer didaktikoak
- Erakusketen antolamendua
- Ondareari buruzko unitate didaktikoak eta e-learning ikastaroak
- Auzolandegiak eta boluntariotza-lanak antolatzea

Informazio gehiago: www.aranzadi.eus

Harremanetarako: zuzendaritza@aranzadi.eus